

POBREZIAREN ETA DESBERDINKERIAREN AURKAKO NAFARROAKO ITUNA


2021 - 2030



 PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

 Coordinadora de
ONGD Navarra
Nafarroako GGKEer
Koordinakundea


 reas
NAFARROA
red de economía alternativa y solidaria
alternatibako ekonomia eraldatzailearen sarea

 Red Navarra de Lucha contra
la Pobreza y la Exclusión Social
Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren
kontrako Nafarroako sarea

 CÉRMIN
Navarra - Nafarroa



Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren hitzaldia 2019ko Pobrezia Errotik Ezabatze Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldian.



SARRERA

Bizitzeko baliabide egokiak bermatzeko diru-sarreraren eta bitartekoen falta baino harago doaz pobrezia eta desberdinkeria. Giza eskubideen arloko arazoak dira.

Pobreziaren adierazpenak dira, besteak beste, gosea, malnutrizioa, etxebizitza duinik ez izatea, eta hezkuntza, osasuna edo enplegua bezalako beste zerbitzu oinarriko batzuetarako irispide mugatua izatea. Diskriminazioa eta gizarte bazterketa ere bai, eta, horren barnean, pertsonen parte ez hartzea erabakietan, eragiten dieten erabakietan batez ere. Akats horiek eragotzi egiten dute edonork zilegitasunez desira ditzakeen bizi proiektuak garatzea.

Nafarroako Parlamentuak eta **Gizarte Entitateen Plataformak** (GEP) berariaz agertu nahi dute pobreziaren eta desberdinkeriaren kontrako borrokarekiko konpromisoa.

2019. urtean, **Pobrezia Ezabatzeko Nazioarteko Eguna** zela eta, Parlamentuak, aho batez, konpromisoa hartu zuen **Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Itun** berri bat garatzeko Gizarte Entitateen Plataformarekin batera, 2007an sinatu zena berri eta eguneratuko zuena eta aurreikuspen hauek bilduko zituen:

1. Bada agindu etiko, sozial, politiko eta ekonomiko bat, pobrezia desagerrarazteko helburua lortzeko eta gizarte kohesioa lortzeko.
2. Nafarroa **2030 Agendari** eta Garapen Jasangarriko Helburuen garapenari atxikitzea adostasun politiko eta sozialerako elementu sendo bat da pobrezia eta desberdinkeria ezabatzeko, hala herrialde pobretuetan nola gure ingurunean. Nazioarteko komunitateak etengabeko ahalegina egin behar du helburu horien lorpena bermatu ahal izateko.
3. Nafarroako Gobernua **2030 Agendari** eta haren helburuak betetzeari atxiki zitzaion 2019ko maiatzaren 30ean, hura betetzeko behar zen ahalegina babesteko konpromisoarekin.

4. Ekonomia solidarioa —zeinak bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, enpresa solidarioak eta finantza solidarioak jasotzen baititu— Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeari begira beharrezkoa den eredu baten gisa planteatzen da, eta bazterkeriaren nahiz pobreziaren zergatien aurkako borrokan parte hartzen du, garapen iraunkor bat sustatuz eta gaurko nahiz etorkizuneko belaunaldien beharrezkoak jaso.

5. Nafarroako botere publiko eta eragile politiko eta sozial guztien erantzukizuna da pertsona guztien eskubideen legitimazioa indartzea, eta aporofobiarik gabeko Nafarroa lortzea, hots, pertsona behartsu edo ahulen aurkako fobiarik gabekoa. Eta kohesio sozial handiagoak eskatzen du, aldi berean, pobrezia eta gizarte bazterketa desagerrarazteko politika publikoak bultzatzea, ukitutako dimentsio guztiak jasoko dituzten politika eraginkorrak sustatuz (etxebizitza, osasuna, enplegua eta prestakuntza, hezkuntza, haurrak eta gazteak...), eta baliabideak direla-eta behar adinako eta beharrezkoa den zuzkidura edukiz.

6. Garapen jasangarria eta desberdinkeriaren kontrako borroka ezinezkoak izanen dira garapenerako lankidetzaren arloko politikarik gabe; politika horiek Garapen Jasangarriko Helburuen lorpena sustatu behar dute herrialde eta herri pobretuetan, eta botere publikoen jarduketetan garapenaren aldeko politiken koherentzia jaso behar da helburu gisa.

7. Ahalegin solidario hau garatzen duen esparru instituzional eta politikoa hainbat legegintzalditan egindako lanaren fruitu eta herritarren ondare amankomuna da, akordio politikoaren eta herritarren mobilizazioaren fruitu. Iraganen hartutako konpromisoak gaurkotu beharra dago konpromiso horiek egiaz bete daitezen lortzeko eta errealitate politiko eta sozial berrien arabera areagotu daitezen. **Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna** eguneratuz gauzatu behar da borondate hori, lankidetzarako politika eta gizarte politikak interes alderdikoien mende jarri behar ez direla jabeturik.

Covid-19 pandemiak are gehiago irimotu du talde parlamentario guztien eta Gizarte Entitateen Plataformaren konpromisoa ituna eguneratzeko; ondorio sanitario, ekonomiko eta sozial berrien ondoren, itun horrek beste tamaina bat hartu du.

Talde parlamentario guztiek elkarrekin eta gizarte zibil antolatua ordezkatzeko duen **Gizarte Entitateen Plataformarekin** batera egindako lanaren emaitza da **Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Itun** berria.

Itunaren xedea da aurrera egitea 2030 Agendan jasotako helburuetarantz:



1. Pobreziari amaiera ematea bere adierazpen guztietan mundu osoan.



2. Gosearekin amaitzea, elikadura-segurtasuna lortzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.



3. Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztien ongizatea sustatzea adin guztietan.



4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta etengabe ikasteko aukerak sustatzea guztientzat.



5. Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neskatxa guztiak ahaldunduz.



6. Ura eta saneamendua guztien eskura egoneren direla eta modu jasangarrian kudeatuko direla bermatzea.



7. Energia merke, fidagarri, jasangarri eta modernoa guztien eskura izanen dela bermatzea.



8. Hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegu produktiboa eta lan duina ere.



9. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria sustatzea eta berrikuntza bultzatzea.



10. Herrialdeen barneko eta herrialdeen arteko desberdinkeria gutxitzea.



11. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.



12. Kontsumo eta ekoizpen eredu jasangarriak bermatzea.



13. Klima aldaketari eta beraren eraginei aurre egiteko neurri urgenteak hartzea.



14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatu eta erabiltzea, garapen jasangarria helburu.



15. Lurreko ekosistemen erabilera jasangarria babestu, berrezarri eta bultzatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiarazi eta iraultzea eta biodibertsitate galera etetea.



16. Garapen jasangarriko gizarte bakeatsuak eta inklusiboak sustatzea, guztientzako justiziarako sarbidea erraztea, eta maila guztietan erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea, kontuak ematen dituztenak.



17. Inplementaziorako baliabideak indartzea eta Garapen Jasangarriko Mundu Aliantza biziberritzea.

ITUNAREN INDARRALDIA

Hemen jasotako neurriak 2021-2030 bitarteko epean gauzatu behar dira, **2030 Agenda** eta bertan bildutako garapen jasangarriko helburuak bezala.

JARRAIPEN BATZORDEA

Itun honetan jasotako neurrien garapenaren jarraipena egiteko, jarraipen batzorde bat sortuko da, honela osatua:

- Batzordeburua.
- Talde parlamentarioak ordezkatzuz: talde bakoitzeko ordezkari bat.
- Gizarte Entitateen Plataforma ordezkatzuz: GEPeko kide diren entitateen ordezkari bana, eta une horretan idazkaritza teknikoan ari den pertsona.

Jarraipen bilerak sei hilean behin eginen dira. Aldez aurretik, talde parlamentarioek, beren egitekoa betez, informazioa eskatuko dute plan honetako neurriak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzeko.

Honako ebaluazio hauek eginen dira plan honen indarraldian zehar (2021-2030):

2023: Adostutako neurrien betetze mailaren ebaluazio bat eginen da.


2026: Tarteko ebaluazio bat eginen da plan honen exekuzio aldiaren erdia iragandakoan.

2028: Neurrien betetze mailaren beste ebaluazio bat eginen da, aurrez egindako tarteko ebaluazioan oinarrituta.

2030: Amaierako ebaluazioa.



Unai Hualde Parlamentuko Lehendakaria, talde parlamentarioetako eledunak eta Gizarte Entitateen Plataformaren ordezkariak 2019ko Pobrezia Errotik Ezabatze Nazioarteko Eguneke kanpainaren leloarekin.



2030 AGENDA KO GARAPEN-HELBURUEI BEGIRA ADOSTUTAKO NEURRIAK

1 POBREZIA DESAGERTzea



GJH.1 POBREZIARI AMAIERA EMATEA


Legegintzako Funtzioa

Parlamentua araudi, plan, baliabide, azterlan, indize eta abarrekoak diseinatzeko, idazteko eta onesteko garaian —hala orokorrak nola biztanle talde kalteberenei berariaz zuzenduak— erne egonen da horiek guztiak egokiak izan daitezen, alegia, beren eskuragarritasuna, eragina eta biztanleen atxikimendua bermatzeko modukoak izan daitezen. Halaber haien betearazpenari adi egonen da.

Parlamentuak baliabideen birbanaketa justua erregulatzeko behar diren zerga-neurriak proposatuko ditu, batez ere kolektibo kalteberenetan eragin negatiboa duten alderdiak zuzentzekoak.

Parlamentuak hurrei buruzko Lege berri baten sorrera eta jarraipena sustatuko du. Lege integrala izanen da, eta prebentziozko eredu bat hartuko du oinarri, ez bakarrik eredu leuntzaile edo konpontzailea.

Parlamentua irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legearen betearazpenari adi egonen da, desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuna bermatzeko, irisgarritasun unibertsaleko neurri egokiak ezarritz ingurune, prozesu, ondasun, produktu edota zerbitzuetan, eta guztientzako diseinuaren irizpideari jarraituz.



Kontrol, bultza eta zuzendaritza politikoko funtzioa	<p>Parlamentuak jarraipena emanen dio Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Gidariaren betearazpenari.</p>
	<p>Parlamentuak sustatuko du desgaitasunaren aldagaia sar dadila pobrezari eta gizarte bazterketari buruzko azterlan estatistiko eta txosten teknikoetan, sexuaren eta desgaitasun moten arabera bereizitako datuekin, kolektiboaren diagnostiko egiazkoa eta zehatza ezagutzea helburu.</p>
	<p>Parlamentuak urtero Nafarroako Gobernuari informazioa eskatuko dio programa- edo gobernu-akordioen garapenari buruz, eta behar bezala gara daitezen begiratuko du.</p>
	<p>Parlamentuak urtero Haurren Pobreziaren aurkako goi-komisarioarekiko koordinazio eraginkorra gainbegiratuko du eta horren jarraipena eginen du Nafarroako Gobernuarekin batera.</p>
	<p>Parlamentuak neurriak ezarriko ditu klausula sozialak eraginkortasunez aktiba daitezen kontratazio publikoan, eta begiratuko du % 6ko merkatu-erreserba bideratu dadin gizarte bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskua duten pertsonentzako irabazi-asmorik gabeko enplegu zentro berezietara eta gizarteratze eta laneratze enpresetara, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikuluan ezartzen den bezala.</p>
	<p>Parlamentuak familien, Haurren eta Nerabeen II. Plan Integralaren jarraipena eginen du, arreta berezia jarriz prebentzio programei.</p>
Funtzio Ekonomiko-Finantzariora	<p>Parlamentua erne egonen da Nafarroako Aurrekontu Orokorra onesterakoan Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko aurrekontu-zuzkidura nahikoa eta egonkorra ezar dadin.</p>
	<p>Parlamentua erne egonen da Nafarroako Aurrekontu Orokorra onesterakoan araudi, plan, baliabide, azterlan, indize eta abarrekoak betetzeko aurrekontu-zuzkidura nahikoa eta egonkorra ezar dadin.</p>
	<p>Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Lankidetzaren III. Plan Gidarian jasotako portzentajeak betetzea bermatuko du.</p>



GJH.2 GOSEA EZABATZEA

Legegintzako Funtzioa

Parlamentuak gizarte Zerbitzuen Zorroa arautzen duen 69/2008 Foru Dekretua eguneratzea sustatuko du, zorro berrian baliabide berariazkoak jasotzeko, malguak eta Nafarroako biztanleen errealitate berriari eta premiei egokituak.

Parlamentuak tokiko nekazaritza-ekoizpen ekologikoa indartzeko neurriak ezarriko ditu.

Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa

Parlamentuak urtero Nafarroako Gobernuari informazioa eskatu dio arau, plan eta estrategia lotuei buruz.

Parlamentuak Nafarroako Gobernuari txosten bat eskatuko dio nekazaritzaren eta abeltzaintzaren esparruan dituen merkataritza-harremanei buruz, beste herrialde batzuetako komunitateen elikadura-subiranotasunari eta garapen jasangarriari kalterik egiten ez dietela bermatzeko.

Parlamentuak klausula sozialen eta merkatu-erreserbaren ezarpena sustatuko du, elikadura osasungarria eta jasangarria (0 km) indartze aldera zerbitzu publiko guztietan (ikastetxeak, ospitaleak, egoitzak, 0-3 urteko gelak, mendekotasuna duten pertsonentzako arreta eta abar).

Parlamentuak berriaz sustatuko ditu nekazaritza ekologikoaren edota agronomiaren arloko ekintzailletza lerroak, landa eremuak suspertzeko, elikadura hobetzeko eta lehen sektorearen alde apustu egiteko.



3 OSASUNA ETA ONGIZATEA



GJH.3 OSASUNA ETA ONGIZATEA

Legegintzako Funtzioa

Parlamentuak sendagai eta txertoen doakotasuna arautzea sustatuko du, pertsonak tratamenduetara atxiki daitezen, bai eta laguntzak ezartzea ere, begi, belarri eta hortzetako osasun-beharrizanei erantzuna emateko, eta elementu ortoprotesikoen, higiene gaien eta osasun kolektiboa babesten duten elementuen eskuragarritasuna ere bai.

Parlamentuak jokoari buruzko legeria murriztailea sustatuko du.

Parlamentuak batere hondakinik ez izateko politikaren garapena sustatuko du: konpostajea, diru-gordailuaren, diru-itzulketaren eta bilgarria lehengai bihurtzearen sistema, berrerabilera. Eta inpaktu leuneko trantsizio ekologikorako politika autonomikoaren garapena ere bai.

Parlamentuak jaioberrien baheketa hedatuaren ezarpena sustatuko du gaixotasunen diagnostikoa hedatzeko eta tratamendu goiztiarrak emateko; horrela haurren eta haien familien bizi kalitatea hobetuko da eta haurren desgaitasun egoeren intzidentzia apalduko.

Parlamentuak katalogo ortoprotesikoaren modernizazioa sustatuko du, erregulazioa egin dadin, produktu berriak erantsiz, koordainketa progresiboa eta laguntza-produktuen prestaziorako sistema bat abian jartzea barnean hartuta.



Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa	Parlamentua araudi, plan, baliabide, indize eta abarrekoak diseinatzeko, idazteko eta onesteko garaian —hala orokorrak nola biztanle talde kalteberenei berariaz zuzenduak— adi ibiliko da horiek guztiak gizartetik baztertuta dauden pertsonen errealitaterako egokiak izan daitezen, alegia, beren eskuragarritasuna, eragina eta biztanleen atxikimendua bermatzeko modukoak.
	Parlamentuak urtero gainbegiratuko du nola betetzen diren Nafarroako Osasun Mentaleko III. Planean (2019-2023) hartutako konpromisoak.
	Parlamentuak urtero gainbegiratuko du nola betetzen diren Nafarroako Desgaitasun Planean (2019-2025) hartutako konpromisoak, bizimodu osasuntsuak sustatu eta osasunarentzako arriskuak gutxitzeari dagokionez.
	Parlamentuak sei hilean behin 7/2018 Errege Dekretuaren betetze mailaren jarraipena egiten du Nafarroan arauz kanpoko egoeran bizi diren pertsonen dagokienez, horiek ere osasun laguntzarako eskubidea baitute funts publikoen kargura, Espainiako nazionalitatea duten pertsonen baldintza berekin (3 ter artikulua).
	Parlamentuak Lankidetzak Kontseilu bakoitzaren ondoren Osasun Batzordearen jarduketei buruzko txosten bat eskatuko du, bermatze aldera erabakitako neurri guztiek beste herrialde batzuetako osasun arloko langileen deskapitalizazioa eragotziko dutela eta lankide diren herrialdeetako osasun arloko langileen gaitasuna indartu egiten dela.
	Parlamentuak Drogei eta Adikzioei Aurrea Hartzeko Nafarroako III. Plana berrikusiko du eta haren garapenaren jarraipena egiten du.
	Parlamentuak Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Konbentzioarekin bat datorren Eredu Soziosanitario Inklusibo bat sortzea sustatuko du.
Parlamentuak urtero informazioa eskatuko du sexu- eta ugalketa-osasunerako irispide unibertsalari buruz.	
Funtzio Ekonomiko-Finantzariora	Parlamentuak konpromisoa hartzen du Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak artatzeko 39/2006 Legea betetzeko baliabideak jartzeko, batez ere autonomiaren sustapenerako eta mendekotasunaren prebentziorako.
	Parlamentuak pertsona guztientzako osasun laguntza doakoa, integrala, unibertsala eta eskuragarria bermatu eta indartuko du, ezinbesteko zerbitzu publikoa den aldetik.



GJH.4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

<p>Legegintzako Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak funts publikoekin mantentzen diren ikastetxe guztien artean ikasleak modu orekatuan banatzeko araudiaren, egutegiaren eta prozeduraren sorrera eta jarraipena sustatuko ditu, desabantaila soziokulturala edo egoera ahulagoa duten ikasleen metatze tasak beharrezko ikastetxe publikoetan; edota ikasleen eta haien familien beste edozein inguruabar edo ezaugarri eragindako bestelako metatzeen tasak beharrezko.</p>
<p>Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak konpromisoa hartu eta ekintzak bultzatuko ditu kalitatezko hezkuntza inklusiboaren eredu baterantz, hezkuntza-etapa guztietan (ez soilik derrigorrezko etapan); horrela bermatuko da desgaitasuna duten pertsona guztiek hezkuntzarako eskubidea baliatu ahal izatea bakoitzaren premietara moldatutako laguntza pertsonalizatuarekin eta baliabide-hornidura egokiarekin. Eredu horrek eskola esparruko bizikidetzaren sustapenerako eta prebentziorako politikak bultzatzea aurreikusiko du, arreta berezia jarriz desgaitasuna duten ikasleei.</p> <p>Parlamentuak kanpaina publikoak bultzatu eta babestuko ditu ekonomia solidarioaren arloko ekimenak hedatzeko: merkatu soziala eta kontsumo arduratsua, finantza etikoak, kontsumoko kooperatibak (energia, elikadura, nekazaritza ekologikoa...).</p> <p>Parlamentuak garapen jasangarriari buruzko heziketa kanpainen eta gida didaktikoen diseinua sustatuko du irakaskuntza maila guztietan.</p> <p>Parlamentuak Garapenerako Hezkuntzako Estrategiaren jarraipena egingen du.</p> <p>Parlamentuak eskola esparruko bizikidetzaren sustapenerako eta prebentziorako politikak bultzatuko ditu, arreta berezia jarriz ikasle kalteberenei.</p> <p>Parlamentua erne egonen da Aniztasunari Erantzuteko Planean hartutako konpromisoak bete daitezten.</p> <p>Parlamentuak ekonomia solidarioaren arloko prestakuntza planak garatzea sustatuko du, enplegu politiken esparruetan diharduten langileentzat, bai eta tokiko garapen sozioekonomikoaren garapeneraren esparruetan dihardutenentzat ere.</p>

**Funtzio
Ekonomiko-
Finantzarioa**

Parlamentuak Garapenerako Hezkuntzaren arloko proiektuen deialdiari eutsiko dio, eta Parlamentuaren aurrekontuaren % 0,7ra iritsiko da 2024. urterako.

Parlamentuak pertsona guztientzako hezkuntza-arreta doakoa, integrala, unibertsala eta eskuragarria bermatu eta indartuko du, ezinbesteko zerbitzu publikoa den aldetik.

Parlamentua arduratuko da benetan handitu daitezen, pixkanaka, hezkuntzara eta beketara bideratutako baliabide publikoak, harik eta Nafarroak hezkuntzaren arloan aurreratuen dauden inguruko herrialdeetako batezbestekoa erdietsi arte (BPGaren % 5).





GJH.5 GENERO-BERDINTASUNA

Legegintzako Funtzioa	<p>Parlamentuak erantzunkidetasuna eta lanaren eta bizitza pribatuaren arteko bateragarritasuna erraztera bideratutako araudia sustatuko du, zainketen balioa aintzat hartzeko, batez ere guraso bakarreko familien kasuan.</p>
Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa	<p>Parlamentuak urtero Nafarroako Gobernuari informazioa eskatuko dio Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Foru Legea garatzeko jarduketa planari buruz.</p> <p>Parlamentua adi egonen zaie Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Legea garatzeko ekintza planari, sexu ustiapenerako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatxen aldeko koordinazio eta jarduketa protokoloari eta Nafarroan emakumeen genitalen mutilazioaren kontrako prebentzio eta jarduketa protokoloari.</p> <p>Parlamentuak urtero txostenak eskatuko ditu gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakalari buruz, eta Nafarroan hura berdintzera bideratutako neurriak sustatzeko konpromisoa hartuko du.</p> <p>Parlamentua genero-ikuspegiak politika publikoen multzoa zeharkatu dezan arduratuko da, arreta berezia jarritz arlo hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enplegu politika berariazkoak, ugaltze lana kontuan hartzen dutenak eta emakumeen laneratzea sustatzen dutenak. • Kalitatezko zerbitzu publikoak garatzea, pertsonen zainketa-beharrak aseko dituztenak: 0-3 urte bitarteko haurrak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak... Irabazi-asmorik gabeko kooperatiben eta elkargune komunitarioen sorrera babestea zainketa-zerbitzu jakin batzuen estaldurarako. • Enplegua dela-eta politika publikoaren bidez garatzen diren jarduketan helburuetako bat izan dadila lanaren sexuaren araberako banaketa ezabatzea.
Funtzio Ekonomiko-Finantzariora	<p>Parlamentuak sustatuko du babesa ematea gure lurraldean genero-ikuspegia —izan ditzakeen alderdi guztietan: gizartea, ekonomia, hezkuntza, lana...— zeharkako eran bultzatzen eta garatzen duten entitateei eta ekimenei.</p>



GJH.6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

<p>Legegintzako Funtzioa</p>	<p>Parlamentua adi ibiliko da Gobernuak eta ukitutako eskualdeek batera Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Gidaria gara dezaten, putzuak jaso daitezzen babestu eta kontrolatu beharreko hornidura-iturrien zerrendan, helburua izanik kutsatze gehiago eragozte eta putzuen egoera ona lortzea 20 urteko epean.</p>
<p>Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa</p>	<p>Parlamentua erne egonen da nazioarteko lankidetzara hedatu egin dadin Nafarroako Gobernuak onetsitako programa-akordioa oinarri hartuta; informazioa eskatuko du Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Gidarian jaso eta plan horrek lehenetsitako herrialdeetan edateko uraren eta saneamenduaren eskuragarritasun unibertsal eta ekitatiboa sustatzeko erabiltzen ari diren tresnen bitartez sortutako eraginari buruz.</p> <p>Parlamentuak Uraren Kultura Berriaren balioen zabalkunderako kanpaina publikoak bultzatu eta babestuko ditu.</p> <p>Parlamentuak erakunde publiko nahiz pribatuetan sustatuko du ura modu efizientean erabiltzea, ondasun publiko naturala eta ezinbestekoa den aldetik.</p>



7 ENERGIA
ESKURAGARRIETA
EZ-KUTSATZAILEA



GJH.7 ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSATZAILEA

Legegintzako Funtzioa

Parlamentuak pobrezia energetikoaren aurkako borrokarako estrategia bat bultzatuko du, bonu, salbuespen eta horrelakoetan oinarritua.

Parlamentuak erraztu egingen du hurbileko energia-iturri txiki eta ez-inbaditzaileetan oinarritutako energia eredu bat lehenbailehen sortzea, gizarte ekimeneko kooperatiben bitartez energiaren ekoizpen eta merkaturatze publikoa sustatuz, desazkundera, energiaren arloko herri-subiranotasuna eta bizimodu jasangarria hobetsiko dituen eredu batera iragateko tresna gisa. Horretarako, pixkanaka erregai fosilen eta energia nuklearraren ustiapena buka dadin arduratuko da.



**Kontrol,
Bultzada eta
Zuzendaritza
Politikoko
Funtzioa**

Parlamentuak Ekonomiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratua berrikusiko du eta Estatuko erakundeak premiatuko ditu hura berrikus dezaten; tartean, eraikinen energia-efizientziari, energia berriztagarriei eta argindarraren barne-merkatuari buruzko Europako zuzentzaruek eta Energiaren eta Ekintza Klimatikoaren Gobernantzarako Europar Batasuneko Erregelamenduak ezartzen dituzten neurriak; eta neurriok Nafarroako ordenamendu juridikoan sartzeko konpromisoa hartzen du.

Parlamentuak energia-trantsizioaren azkartzea sustatuko du, erregai fosilak erabiltzeari utzi eta eredu % 100 berriztagarria ezartzeko, ahalik eta efizienteena, kutsatzailerik isurtzen ez duena; apustu irmoa egingen du autokontsumoaren alde, eskualde eta toki eremuetako politika publikoak direla medio.

Parlamentuak konpromisoa hartzen du erregai fosilen eta industria nuklearren aldeko sorospenak kentzeko, karbonoa isurtzen duten nazioz haraindiko korporazioentzako sorospenei amaiera emanez eta "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa ezarriz eta aplikatuz, neurri eta helburu kuantifikagarrien bitartez. Halaber berotegi efektuko gasik gabeko energia iturriak sustatuko ditu, barnean harturik eguzki eta haize energiaren eta eskala txikiko energia hidroeletrikoaren hedapena; pixkanaka erregai fosilak eta energia nuklearra ustiatzeari uztea sustatuko du.

Parlamentuak energiarako eskubidea pertsonen oinarritzko eskubidetzat har dadila sustatuko du, jada aitortutako beste hainbat eskubide (osasuna, hezkuntza, ingurune egokia...) garatzeko bitartekoa baita.

Parlamentuak lurraldean energia-auditoria bat egitea sustatuko du, etxeetan, industrian eta arlo publikoan kontsumoa arrazionalizatzeko plan bat garatze aldera.

Parlamentuak pobrezia energetikoan esku hartzeko neurriak ebaluatuko ditu eta, behar izanez gero, hobekuntzarako neurriak sustatuko ditu.

Parlamentuak Nafarroako Gobernuari txosten bat eskatuko dio energiaren arloan dituen merkataritza-harremanei buruz; horrela bermatu nahi du harekin akordioak dituzten Nafarroako enpresek ez dutela pobrezia energetikoa eragiten duen abusuzko ekintzarik egiten Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialdeetan.

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



GJH.8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa

Parlamentuak urtero informazioa eskatuko du Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 36. artikulua inplementazioari buruz; artikulua horrek kontratu publikoen % 6ko erreserba ezartzen du gizarte entitateentzat.

Parlamentuak ekonomia sozial eta solidarioko enpresak sendotzeko lerroen garapena sustatuko du: sareko baliabideak, kudeaketa komunitarioa, beren inguruko komunitatean inplikaturako eragileen sare-lana errazten duten guneak, prestakuntza eta aholkularitza, merkaturatze-estrategiak... Enpresak suspertu eta ekonomia sozial eta solidarioko figuretarantz eraldatzeko prozesuak babestuko ditu, kasua bada. Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko erreferentziako ekipamendua bultzatuko da, hala herritarrentzat nola tokiko eragile ekonomikoentzat: ekonomia sozial eta solidarioko enpresa gune eta merkataritza ganberak, ekintzailatza sozialeko eskolak eta programak, lankidetzazko garapenerako guneak eta ateneoak; mankomunitate eta udalen arteko lankidetzazko sareak ezartzea sektore estrategikoetan (energia berriztagarriak, finantza etikoak, elikadura-subiranotasuna eta kontsumo arduratsua, besteak beste).

Parlamentuak bermatuko du Nafarroako hurrengo enplegu planean neurriak ezarriko direla gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko, eta indartu egingen dela NL-NEZek enpresa eta entitateei laguntzak emateko inbertsioa, kontratazioa sustatze aldera, biztanle kalteberenei zuzendutako enpleguaren aldeko politika gisa. Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak laneratzeko bermatuko bada, haien enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza ekintzak egin behar dira, arrakala eta alfabetismo digitala murriztera bideratutako ekintzak, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatu eta integralak, eta lagun-egite sozialeko prozesuen eta prestakuntza eta enplegu eredu mistoen areagotzea.

Parlamentuak dituen merkataritza-harremanei buruzko txostena eskatuko dio Nafarroako Gobernuari, eta bertan bermatuko da Nafarroako enpresek edo haiekin akordioak dituzten enpresek ez dituztela inola ere urratzen lan duinerako eskubidea eta Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala; eta merkataritza-harremane horiek, nazioartekoak badira, ez dituztela nahasten toki ekonomiak.

Parlamentuak Kontuen Ganbera premiatuko du erakunde kudeaketa ekonomikoaren auditoria publikoak eta partaidetzazkoak egin ditzan eta kontrolerako eta gardentasunerako tresnak bermatuz, eta auditoretza sozialeko adierazleak erabil ditzan toki garapena neurtzeko eta politika publikoak onura komunaren zerbitzuari egokitzeko.

**Kontrol,
Bultzada eta
Zuzendaritza
Politikoko
Funtzioa**

Parlamentuak desgaitasuna duten pertsonen jarduera tasa hobetzeko ekintzak sustatuko ditu:

- Enplegu arruntari dagokionez:

1. Enpresen jarraipena egitea % 2ko erreserba bete dezaten, ikuskapenak ugarituz eta desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa hobetsiz ordezko neurrien aldean.
2. Aurrekontu-baliabidez hornitzea desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko neurri aktiboak: enpresei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak, desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa sustatzea enpresei zuzeneko laguntzak emanez hala kontrataziorako nola lanpostuen egokitzapenerako, prestakuntzarako eta abarretarako.
3. Enplegu lagundua eraginkortasunez sustatzea, desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntean laneratzeko errazten duen neurria den aldetik.

- Enplegu publikoari dagokionez:

4. Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba betetzeko neurriak ezartzea.
5. Enplegu lagundua Administrazio Publikoan sartzea, sustapenerako neurri gisa.
6. Lanpostuak bizkor egokitzeko konpromisoa. Horretarako, lanpostuaren eta desgaitasuna duen pertsonaren arteko bateragarritasunari buruzko txostenak presaz egin behar dira.
7. Lanpostuak bizkor egokitzeko konpromisoa. Horretarako, lanpostuaren eta desgaitasuna duen pertsonaren arteko bateragarritasunari buruzko txostenak presaz egin behar dira.

- Enplegu babestuari dagokionez:

8. Enplegu zentro berezientzako laguntzei eustea eta inbertsiorako laguntzak handitzea.
9. Kontratu Publikoei buruzko Legea (36. artikulua) betetzea eta klausula sozialak sartzea.
10. Dirulaguntzen ordainketa bizkortzeko sistema bat jartzea, bestela entitateek munta handiko gastuei aurre egin behar izaten baitiete, dirulaguntzen kobrantzaren atzerapena finantzatzeko ordaindu behar izaten dituzten interesak direla-eta.

Parlamentuak laneko diskriminazioak ezabatzea sustatuko du.

Parlamentuak Gobernu zentralak lan arloko araudia alda dezan sustatuko du, pertsona guztien lan arloko eskubideak hobeki bermatuko dituen eta etxeko langileen babesa jaso eta handituko duen eredu baterantz jotzeko.

**Funtzio
Ekonomiko-
Finantzarioa**

Parlamentuak laguntza larrien garapena sustatuko du, bai ekonomia sozial eta solidarioko enpresak sendotzeko (sareko baliabideak, prestakuntza eta aholkularitza, merkaturatze-estrategiak, etab.), baita toki entitateek ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzen duten toki plan estrategikoak garatzeko ere.

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



GJH.9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Legegintzako Funtzioa

Parlamentuak sustatuko du lurraldeari onura itzuliko dioten lizitazio publikoen aldeko politikak garatzea, ekonomia sozialeko entitateen parte-hartzea bermatuz eta tokian tokiko ekoizle txiki eta ertainak baztertu gabe.

Parlamentuak biztanleriaren ongizatea eta garapena azken helburu gisa modu inklusiboan lortzen saiatzen diren politika publikoak garatzea sustatuko du, ekitaldi ekonomiko bakoitza gizartearen nahiz ingurumenaren berrikuntzarako eta hobekuntzarako aukeratzat hartzen dutenak.

Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa

Parlamentuak hondakinak kudeatzeko programa egokiak garatzea sustatuko du, materialak gutxitzea eta berriz erabiltzea lehenesten dutenak, bereziki ehunak, eraikuntzako materialak, elektronikoak eta plastikoak.

Parlamentuak internet eta gailuak biztanle guztien eskura jartzeko neurrien ezarpena sustatuko du, eta bereziki arduratuko da Foru Komunitateko adingabe guztien eskura egon daitezen hezkuntzaren arloko arrakala digitala saihesten duten gailuak, eta banda zabala landa eremuetako bazter urrunetara ere hedada dadin.

Parlamentuak ekonomien dibertsifikazioa sustatuko du ekoizpen eta kontsumo molde hurbilagoak bilatuz, intentsiboagoak lanesku aldetik, bai eta merkataritza bidezkoa eta solidarioa ere, atzean utziz oinarrizko produktuen inportazioekiko mendekotasuna. Halaber ikerketa sustatuko du unibertsitate eta laborategien eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko lankidetzaren esparruan.

Parlamentuak pixkanakako digitalizazio prozesua eskatuko dio Nafarroako Gobernuari, eta kontuan har dezala aurrez aurreko arreta eman behar zaiela Internetarako sarbiderik edo gailurik ez duten kolektibo kalteberenei edota gaitasun digital apalak dituztenei; eta aldi berean sustatuko du neurriak ezar daitezela Internet eta gailuak biztanle guztien eskura jartzeko.

Funtzio Ekonomiko-Finantzariora

Parlamentuak handitu egingen du enplegu zentro berezietan eta gizarteratze eta laneratze enpresetan inbertsioak egiteko aurrekontu-partida.

10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA



GJH.10 DESBERDINKERIAK MURRIZTEA

Legegintzako Funtzioa

Parlamentuak etxeko batek desgaitasuna izateak familiarengan duen eragin ekonomikoari buruzko azterlana egitea sustatuko du.

Parlamentuak Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzea sustatuko du.

Parlamentuak Gobernu zentrala premiatuko du zerga araudia aldatu eta BEZa murriztu diezaien desgaitasuna duten pertsonak beren autonomia pertsonala hobetzeko erabiltzen dituzten laguntza-produktuei.

Parlamentuak harreman bidezkoagoak sustatzen dituzten zerga neurriak proposatuko ditu, biztanle talde kalteberen garapena sendotzen dutenak, desberdinkeria sozialak eta ekonomikoak txikiagotzeko, giza eskubideak errespetatuz eta zerga ihesari aurre eginez, eta zerga saihestea kontrolatuz eta erregulatuz.

Erakunde publikoen eta enpresa sektorearen artean dauden harremanak (lankidetzak publiko-pribatuak barne) gardentasunerako eta kontuak emateko legezko mekanismo lotesleak, giza eskubideak errespetatzearen eta ingurumena babestearen menpean jartzea.

Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa

Parlamentuak sustatuko du administrazioek finantza etikoen bidez egin dezatela finantza-lana.

Parlamentuak abiarazi beharreko ekimen orotan desgaitasunaren aldagaia erantsiko du zeharkako eran, pertsona guztien arteko aukera-berdintasuna lortzeko.

Parlamentuak sustatuko du arlo anitzeko lan-batzorde bat era dadila, oinarritzko osasun arretaren, osasun mentalaren eta gizarte zerbitzu publiko nahiz pribatuen ordezkariak osatua.

Parlamentuak sustatuko du kontratazio publikoan klausula sozialak sartzea, bidezko merkataritzaren aldeko irizpideak ezartzea eta hornidura-kateetako baldintza sozialei erreparatzea.

Funtzio Ekonomiko- Finantzarioa

Parlamentuak gizarte zerbitzu publiko nahiz pribatuen sistema indartuko duten ekintzak sustatuko ditu, Nafarroan pertsona guztien inklusiorako eskubidearen erabilera areagotzeko.

Parlamentuak konpromisoa hartzen du oinarritzko gizarte zerbitzuak aurreikusten den eskari sozialerako baliabide egokiez hornitzeko, haiek osatzen baitute Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren funtsezko unitatea. Ildo horretan, gogoan izan behar da Gizarte Zerbitzuak Finantzatzeko Dekretua planteatu zenean erabili zen diagnostiko sozialaz oso bestelakoa dela gainean dugun etorkizuna.



DESPAREKOTASUN GORDINEN
kontra mugitu

**Muévete contra la
DESIGUALDAD OBSCENA**

83000

personas en riesgo de pobreza

Día Internacional para la Erradicación de la Pobreza
Pobreziaren aurkako nazioarteko eguna

urriak 17 de octubre
www.pesnavarra.wordpress.com/

POBREZA CERO

reas
GEMIN
Nafarroa, Nafarroa





GJH.11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

<p>Legegintzako Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak erroldatzea bermatzeko neurriak sustatuko ditu, askotariko kausengatik izapide hori egin ezin izatearen arazoari aurre egiteko.</p> <p>Parlamentuak alokairu librean bitartekaritzara jotzeko neurriak arautuko ditu edo arautu daitezen sustatuko du zerga politikaren bidez.</p> <p>Parlamentuak ingurumen eta gizarte jasangarritasunaren adierazleetan oinarritzen den eta garraio publikoko zerbitzuak indartzen dituen mugikortasun ereduak sustatuko du.</p> <p>Parlamentuak pertsona guztientzat irisgarriak diren etxebizitzaren kopurua handitu dadin sustatuko du etxebizitzaren sustapenetan.</p> <p>Parlamentuak etxebizitza kudeatzeko eredu berriak bultzatuko ditu: lurzoru publikoa gordetzea etxebizitzaren erabilera lagatzen duten kooperatibentzat, alokairu sozialeko etxebizitza publikoak sustatzea, belaunaldi arteko etxebizitzaren eta lankidetzazko beste etxebizitza mota batzuen ekimenak garatzea, etab.</p>
<p>Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak gizarte bazterkeria jasaten duten pertsonen etxebizitza mantentzeko neurri pasiboak malgutzea eta haien estalduraren hedapena sustatuko du.</p> <p>Parlamentua natura ondasunen kudeaketari dagokionez, jasangarritasuna, erabilera ekitatiboa eta etekinen banaketa bermatzen dituen tokiko eredu demokratiko eta integral baterantz jo dadin arduratuko da.</p>
<p>Funtzio Ekonomiko-Finantzariora</p>	<p>Parlamentuak eraikin eta etxebizitzaren irisgarritasunerako laguntza ekonomikoak handitu eta egokitzea sustatuko du.</p> <p>Parlamentuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan toki entitateentzako partidak jarriko ditu irisgarritasun planak egin ditzaten.</p>

12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUA



GJH.12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

<p>Legegintzako Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak jarraipena egingen dio kontratazio publikoko klausula sozialen ezarpenari; horrek barnean hartzen du bidezko merkataritzaren irizpideak erabiltzea eta ekoizpen- eta hornidura-kateetako baldintza sozialei erreparatzea edota kontratazio publikoko klausula sozialen jarraipena egiteko tresnak ezartzea.</p>
<p>Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak eraginkortasunez sustatuko du kontsumo kritiko, arretatsu eta eraldatzailea sustatzeko berariazko planak egitea eta garatzea, bai eta ekonomia sozial eta solidarioko merkatu sozialeko zirkuituak sustatzea ere, hurbiltasunean, jasangarritasunean eta langileen eskubideetan oinarrituak.</p> <p>Parlamentuak kontsumo eta ekoizpen jasagarrirei buruzko informazioaren eskuragarritasuna sustatuko du, eta herritarrak tokian tokiko kontsumoaren eraginaz eta maila globaleko inpaktuaz ohartarazteko ekimenen eta jardunbide egokien zabalkundea babestuko du.</p> <p>Parlamentuak kontsumo arduratsuaren inguruan herritarrak kontzientzia hartzera bultzatuko du, informazioaren, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetako ekintzak direla medio, askotariko publikoari zuzenduak: ikasleei, gazteei, kontsumitzaileei, toki edo autonomia eremuko enpresa-ehunari...</p> <p>Parlamentuak ekonomia sozial eta solidarioko entitate, produktu eta zerbitzuen mapak egin eta entitateak bistaratzea barnean hartzen duten kanpainak sustatuko ditu.</p> <p>Parlamentua merkaturatze zirkuitu laburrei bultzada ematea lehenets dadin arduratuko da, hurbileko eta tokiko merkataritzari laguntzeko neurriak barne direla. (Mapak egitea, tokiko merkatuak berreskuratzea, bistaratzea, kontsumo kritiko arretatsuari buruzko kanpainak, espazioak eta baliabideak eskaintzea).</p> <p>Parlamentuak konpromisoa hartzen du bere ekintzetan kontsumituko dituela tokiko entitateen produktu eta zerbitzuak, ekoizpen ekologikokoak, langileen eskubideen errespetua bermatzen duten entitateetan, eta administrazio publikoek ere horrela kontsumi dezaten sustatuko duela kontratazio publiko arduratsuaren kanpaina zabalago baten barnean.</p> <p>Parlamentuak bere babesa eskainiko du herritarren sentsibilizaziorako eta finantzen arloko heziketarako kanpainak egiteko, finantza etiko eta alternatiboen irizpideei jarraituz, eta halakoen aldeko adierazpen instituzionalak sustatuko ditu.</p>
<p>Funtzio Ekonomiko-Finantzariora</p>	<p>Parlamentuak konpromisoa hartzen du kontsumo bulegoetako teknikariek kontsumo arduratsuaren arloko gaikuntza izan dezaten arduratzeko.</p>

13 KLIMA BABESTEKO EKINTZA



GJH.13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Legegintzako Funtzioa

Parlamentuak konpromisoa hartzen du Foru Komunitatearen trantsizio ekologikorako plan estrategiko bat gara dadin arduratzeko; plan zabala eta holistikoa, oinarritzat hartuko dituena energia-kontsumo, mugikortasun eta garraio jasangarriak, hondakinen eta ekoizpen ereduaren kudeaketa eta tokiko produktuen merkaturatzea eta kontsumoa, EBko Itun Berdean planteatzen diren ardatzetatik abiatuta: energia garbia, industria jasangarria, berrikuntza eta eraikuntza efizientea, mugikortasun jasangarria, biodibertsitatea, baserriatik mahaira eta kutsaduraren amaiera.

Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa

Parlamentuak parte hartuko du EBko Itun Berdea kontrolatzeko eta bultzatzeko tresnen prestalanetan Foru Komunitatean garatzen diren ekintza publiko eta pribatuei begira.

Funtzio Ekonomiko-Finantzariora

Parlamentuak garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuen deialdiari eutsiko dio, eta tresna hori finkatu egingen du, klima aldaketa eta haren ondorio globalak leuntzeari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazioa hobetzeko biderik eraginkorrenetakoa delakoan.

Parlamentuak aurrekontu-partidez hornituko ditu EBko Itun Berdean jasotako ardatzetako garapen-planak, eta jasangarritasunean eta eskala txikiko gizarte kohesioan oinarritutako garapen-irizpide berriei egokituko dizkie, gizarte bazterketa eragiten duten logikak saihesteko berme gisa.





GJH.14 ITSASPEKO BIZIA

Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa

Parlamentuak hondakinen inguruko gure ohiturez sentsibilizatzeko eta kontzientzia harrarazteko programak sustatu eta bultzatuko ditu, batez ere bide publikoan botatzen diren hondakinei buruzkoak, beste lurralde batzuetan jada egiten direnen antzeko kanpainak aplikatuz, zigarrokinak eta plastikozko beste hondakin oso kutsagarri batzuk ez direla lurrera bota behar ohartarazteko, ibaiek itsasoraino eramaten dituztelako.

Parlamentuak herrialde pobretuetan itsaso eta ozeanoen kontserbazioa eta ibaien garbitasuna aholkularitzaren eta jardunbide egokien bitartez indartzen dituzten ekimenak babestuko ditu garapenerako lankidetzaren esparruan.



15 LEHORREKO
BIZITZA

GJH.15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA

**Kontrol,
Bultzada eta
Zuzendaritza
Politikoko
Funtzioa**

Parlamentuak espezie autoktonoen toki biodibertsitatearen babesa sustatu eta bultzatuko du erresilientzia eragile gisa: hazi bankuak, germoplasma, espezie autoktonoen mintegi publikoak, intsektizida eta ongarri kimikoen kontrola eta murrizketa, Europako legerian ezartzen denaren ildotik.





GJH.16 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

<p>Legegintzako Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak pertsona kalteberentzako arreta eta informazio juridikorako bulegoak sendotzea sustatuko du, beren eskubideei buruzko zalantzak argitu diezazkieten.</p> <hr/> <p>Parlamentuak estatuan Atzeritarren Legea aldatzea sustatuko du.</p> <hr/> <p>Parlamentuak kontratazio publiko arduratsuan ingurumen eta gizarte irizpideen jarraipen egokia bermatzeko tresnen garapena proposatuko du, gizarte kohesiorako, aberastasunaren birbanaketarako, berdintasunerako eta justiziarako tresna gisa duten funtzioa bermatzeko.</p>
<p>Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa</p>	<p>Parlamentuak Justizia zerbitzuak pertsona guztien eskura egotea sustatuko du.</p> <hr/> <p>Parlamentuak eskuragarritasuna eskatuko du web instituzionaletan, batez ere administrazio publikoen webguneetan, pertsona guztiek parte hartu ahal dezaten.</p> <hr/> <p>Parlamentuak arrazakeria eta aporofobiarik gabeko eremu deklaratu du bere burua eta ez du onartuko jarrera arrazista edo aporofoborik bere jardura instituzionalean. Halaber, Nafarroako Parlamentuak arrazakeria eta aporofobiaren kontrako borroka babesteko ekintzak eginen ditu eta beste erakunde batzuek antzeko ekintzak egitea sustatuko du.</p> <hr/> <p>Parlamentuak jarraipena eginen du eta, kasua bada, kontrolerako, jarraipenerako eta salaketarako baliabideak indartzea sustatuko du, gorroto delitu izan daitezkeen egitateei dagokienez.</p>

17 ITUNAK,
HELBURUAK
LORTZEKO



GJH.17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANZAK

Legegintzako Funtzioa

Parlamentuak Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzea sustatuko du.

Parlamentuak Hirugarren sektorearen eta gainerako erakundeen arteko parte-hartze egiazko eta eraginkorrerako mekanismoak ezartzea sustatuko du.

Parlamentuak enpresei, Estatuan egiten den bezala, sozietateen gaineko zergaren % 0,7aren xedea aukeratzen uzten dien araudia aztertuko du, bai eta onetsi ere, hala badagokio.


Parlamentuak finantza etikoen arloko entitateekin finantza-tresnen garapena sustatuko du ahal duen neurrian: abalak, funts rotarioak, mikrokredituak, eta inteseakoak izan litezkeen gainerakoak.

Kontrol, Bultzada eta Zuzendaritza Politikoko Funtzioa

Parlamentuak Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Gidariak (2021-2024) lehenesten dituen eskualdeetako parlamentuek edo erakunde baliokideek eska dezaketen aholkularitza teknikoan lagunduko du, bere eginkizunen esparruan.

Parlamentuak itun honetan jasotako helburuekin zerikusia duten nazioarteko oroitzapen-ospakizunetan (Haurren Lanaren aurkako Mundu Eguna, Pobrezia Ezabatze Nazioarteko Eguna, Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna...) adierazpen instituzional bana onetsiko du, bere konpromisoa agertuz kasuan kasuko xedearen alde eta hura lortzeko aurrera egitea errazten duten ekintzen alde.

Nafarroako elkarte mugimendu soziala aintzat hartzea, gizarte ekintzaren plangintzan, exekuzioan eta ebaluazioan elkarlanean aritzeko intereseko eragilea den aldetik.



Inma Jurio Nafarroako Parlamentuko Lehen Lehendakariordearen hitzaldia 2020ko Pobrezia Errotik Ezabatze Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi instituzionalean.




www.parlamentodenavarra.es


PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA


 Coordinadora de
 ONGD Navarra
 Nafarroako GGKEen
 Koordinakundea


reas
NAFARROA
red de economía alternativa y solidaria
alternatibako ekonomia eta laguntza sareak


 Red Navarra de Lucha contra
 la Pobreza y la Exclución Social
 Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren
 kontrako Nafarroako sarea


CēRMiN
 ■ Navarra - Nafarroa